



## **Hogeita hamalau euskal enpresa parte hartzen ari dira XXXI. La Habanako Nazioarteko Ferian-FIHAV**

- *Kubak kanpo aldera begira duen erakusleiorik garrantzitsuena da larunbat arte luzatuko den feria hau.*
- *Euskal enpresak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin parte hartzen duten Sektoreaniztuneko feria bakarra da.*
- *34 euskal enpresak gaur inauguratu den euskadiko pabilioian kokatuko dira.*

**Donostia, 2013ko azaroaren 4ean.** Gipuzkoako Bazkundera buru izanik, Eusko Ganberak Kubara itzultzi dira euskal enpresak Kubako merkatura gerturatzeko asmoz. Euskal Ganberak koordinatutako euskal enpresen parte hartzeak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasunaren saileko laguntza jaso du.

Euskal Ganberak 1999 urtetik antolatzen dute euskal enpresen parte hartzea feria honetan. Larunbat arte luzatuko den edizio berri honetan enpresek euren presentzia finkatu nahi dute Kubako erakusleio komertzial garrantzitsuena den honetan, FIHAVen, beraien produktuak erakutsiz. Ferian parte hartuko duten 34 enpresak sektore anitzekoak dira, energia, motoreak, elektrizitate maneiak eta hotel hornikuntza sektoreak nabarmentzen direlarik. Guztiak, gaur inauguratu den Euskadiko pabilioian kokatuko dira.

La Habanako feria kontaktu gune bat da. Kubako enpresa garrantzitsu guztiak pasatzen diren gunea da, oso feria egokia beraz herrialdean sartzeko edota bezeroak diren edo izan daitezkeen Kubako enpresa guztiekin kontaktuak berritzeko.

### **Kuba: aldaketa ekonomikoak**

Herrialdeko antolaketa ekonomikoan piskanaka aldaketak ikusten hasten dira. Honen adibide, 2013ko uztailean martxan jarri zen nekazal eta abeltzaintza produktuen lehen merkatu handizkaria eta baita "eskaera eta eskaintza" arauengatik gidatuko diren beste 12 merkatu ere, azken hauek kooperatibek kudeatutakoak.

"Cuentapropistas" delakoan garrantzia nabarmentzen dijoa, hauek profesional independenteak dira gure langile autonomoen antzekoak izango lirateke. Aurtengo lehenengo hiru hilekoan 30.000 pertsonetan gehitu da iazko urte amaierarekin konparatuz, 430.000 profesionalak gaindituz. Honek aurrera pausu bat suposatzen du langile publikoak ekimen pribatutara bideratzeko orduan.



CAMARA DE GIPUZKOA  
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

## PRENTSA OHARRA

Kontutan hartu beharreko beste gai bat dualtasun monetario eta honen desagertzea da. Honetarako froga pilotu bat egingo da enpresa eta hiri jakin batzuetan, euren balantzetan eta emaitza kontuetan oraingo 1/24aren antzeko aldaketa aplikatuko da honek duen eragina ikusteko. Zerga sisteman ere aldaketak egiteko lanean ari dira. Beste maila batean berriz, ekainean, internet erabili ahal izateko 118 areto ireki ziren, biztanlegoak sarean sartzeko aukera gehiago izan dezan. Egun, interneten erabilpena Kuban biztanlegoaren %15era mugatuta dago.

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

Irene Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347